


Jokin Sagarzazu Donostia

Felipe Espainiakoak negar egin zuen bere Armada urperatu zenean. Ez ote zuen beste inork negarrik egin? (...) Zenbat historia, hainbat galdera. Historiak bezainbat galdera. Zenbat historia! Zenbat galdera!... egiten ditu langile batek liburu baten aurrean. Bertolt Brechtek idatzi zuen olerkia; ondoren, Mikel Laboak maisuki musikatu zuen, eta hitzon espiritua, orain, zurian beltz paratu dute Sabino Ormazabal eta Ibon Plazaola Bidea Helburu taldeko kideek *Indarkeriarik gabeko 500 ekintza. Historia kontatzeko beste modu bat* liburuan (Manu Robles-Arangiz Institutua, 2009). Uztailean izango da liburu dendetan; BERRIAko irakurleek, berriz, aukera izango dute ekainaren 28an ale bat eskuratze-ko.

«Indarkeriarik gabeko erresistentzia aktiboan oinarritutako protesta mugimenduek edo desobediencia zibilean oinarritutakoek historia oparoa dute gure herrian. Esperientzia horiek guztiak jaso egin behar ditugu eta etorkizuneko belaunaldiari transmititu», premisa horretatik abiatuta, 500 pasarte inguru bildu dituzte egileek, antzinatetik hasita gaur egunera arte, kronologikoki antolatuta.

Brechten olerkian aipatzen diren «beste horien» negarrean oinarrituta dago hein handi batean liburu. «Ez dira, baina, etsipen oihuak», ohartarazi du Ormazabalek. Ildo horretatik, eta azpituari erreparatu, honako galdera hau egin dio Plazaolak Ormazabali. «Nola irakatsi digute, bada, historia? Nola irakurri dugu historia?». «Indarkeria kate baten segida izango balitz bezala», erantzun dio Ormazabalek: «Horrek, nolabait, legitimatu egin du indarkeriaren bidea».

Ikuspuntu hori irauli eta historia «edo historiak» kontatzeko,



Sabino Ormazabal eta Ibon Plazaola, Bidea Helburu taldeko kideak, Donostiako kaian. JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

Desobediencia zibilak historia oparoa du Euskal Herrian. Halako 500 ekimen biltzen dituen liburu bat argitaratu dute Bidea Helburuko kideek, eta ekainaren 28an BERRIArekin banatuko da

Indarkeriarik gabeko historiak

irakurtzeko eta ikasteko beste modu bat, «zeharo desberdina» proposatu nahi dute liburuaren bitartez. «Ez da historia nagusia, irakatsi diguten historia; ez da historia ofiziala, baizik eta behekoen historia». Galtzaileena? «Ez dut uste historia hori idatzi dutenek galtzaileak direnik. Desobediencia zibilak ekarpen garrantzitsuak egin ditu historian zehar», zehaztu du Ormazabalek.

«Eta hemen ikusten da historia horretan baliabide garrantzitsua indarkeriarik gabeko ekintzak izan direla: itotzen ez gaituzten ekintzak», dio Plazaolak: «Indarkeriarik ezak ez du mugatzen, ez du zatitzen: partekatuta egiten du. Horretan datza indarkeriarik ezak errealitatea eraldatzeko duen ahalmena».

Egileen arabera, indarkeriarik gabeko ekintzek sormena zirika-

tzen dute. «Indarkeriarik ezak sormena du oinarri. Indarkeriazko egoera batean indarkeria ez baliatzeko sormena behar da, eta erantzukizuna, norberaren buruarekiko eta gizartearekiko». Halako ekimenen bitartez herritarrek protagonismoa hartzen dutela gaineratu du Plazaolak: «Tranpekin hausteko bide bat da. Indarkeriarik gabeko ekintzaile batek bere burua eta

aurrean daukana biluzten ditu. Arazoaz hitz egitea lortzen du». «Pasibotasunaren kontrako» jarrera bat ere badela dio Orma-



Argi dago indarkeria bidezko estrategiek ez dutela irtenbiderik eskaini»

SABINO ORMAZABAL
Bidea Helburu taldeko kidea

zabalek. «Enpatia sortzen duena».

Joxemi Zumalabe Fundazioko kideak jakin badaki, halere, desobediencia zibila praktikatzan duten herri mugimenduak «kriminalizatzeko» joera dutela estatuak, «aspaldi ikasi zuten hori». «Etiketa bat jartzen dizute. Eta aitzakia horrekin zure aldarrikapena desaktibatzen dute. Benetako arazoa desbideratzen dute. Ezin gara tranpa horretan erori». Halaber, uste du borroka armatua oztopo bat izan dela, eta izaten jarraitzen duela. «Gurpil zoro batean gaude. Ezin dira duela hogeituro bideak errepikatu. Argi dago indarkeriaren bidezko estrategiek ez dutela irtenbiderik eskaini». Iritzi berekoa da Plazaola: «Bistan da herri honetan erreprentazioak eta borroka armatuak geldiarazi egin gaituela. Susmoaren herri batean bizi gara. Horrek eragin du mugimendu ezberdinen arteko polarizazioa».

Gizarte osoarentzat bada ere, bereziki «nekatuta dauden edo bide argirik ikusten ez duten» herritarrentzat eginiko lana dela diote egileek. Gizarteari, erakunde, alderdi politikoei, abangoardiari eta abarri eginiko interpelazio zuzena. «Ezin dugu gure etorkizuna haien eskuetan utzi». Halere, egileek badakite bidea luzea dela, aldaketa kulturalak eta politikoa izan behar direla. Liburu «ekarpen xumea» izate nahi dute alde horretatik.

↓ Desobediencia zibila Euskal Herrian

Egileek ez dute liburu teoriko bat egin nahi izan, «lan tresna» bat baizik. Indarkeriarik gabeko erresistentzia aktiboaren isla diren pasarteak jaso, 500dik gora, eta kronologikoki antolatuta dituzte. Hona adibide batzuk.

- **Desertzioa.** Espainiako eta Frantziako armaden aurkako ekimenek historia luzea dute Euskal Herrian. XV. eta XVI. mendeetan egin ziren lehen ekimenak, eta XVIII. mendean barra-barra izan ziren desertzioak.
- **Langileen eskubideak.** 1890. urtean egin zen lehen greba orokorra Euskal Herrian, Bizkai-ko meatze arloan. 1966an frankismo garaiko grebarik luzeena

egin zen Etxebarriko Bandas lantegian.

- **Gose greba.** Eusko Gaztediko kideek egin zuten lehen gose greba, Larrinagako espetxean, 1931. urtean, kargurik gabeko espetxealdien luzapena salatzeko. Tartean zen Eli Gallastegi militante abertzale historikoa.
- **Euskara.** 1943an, Elvira Zipitriak Donostiako bere etxean euskarak irakastea erabaki zuen. Antzeko ekimenak erruz ugaritu ziren Euskal Herrian. 60ko hamarkadan sortu ziren lehenengo ikastolak, desobediencia bidetik.
- **Gaztetxeak.** 1977an, etxeak okupatu zituzten, besteak beste, Lazkaon, Oñatin, Azpeitian, Elgoibarren eta Sestaon.